

# FUNTSEZKO AKTIBITATEAK



## KYOU PROIEKTUAREN GARAPENA

Gure enpresak funtsezko arlo hauek ditu:

Alde batetik, ekoizpen-arloa, hilabetean guztira 25 auto ekoizteko gai den kate-muntaia da. Prozesu horrek honela funtzionatzen du: lehenik eta behin, enpresak autoa sortzeko behar diren materialak jasotzen ditu gure hornitzaileei esker, eta, ondoren, KYOU fabrikako langileak muntaketarekin hasten dira, eta horietako bakoitza ekoizpen-prozesu desberdin batez arduratzen da (bata ateen muntaketarena, bestea motorrena...). Autoa amaitutakoan, biltegi nagusira eramango da, eta bertan gordeko dira, autonomietako kontzesionarioek eskatu arte. Ekoizpen arloko zuzendaritza gure bazkide eta lankide Karla Pérez-ek zuzenduko du.

Bestalde, gure kudeaketa-arloa hainbat sailetan banatuta dago: produktuaren kudeaketa eta bezeroena. Produktuaren kudeaketa aurrera eramateko sistema dinamiko bat erabiltzen dugu. Sistema honetan materialen kontrola izaten da, noiz sartzen eta noiz kanporatzen diren erregistratuz. Honekin batera langile guztiek gainbegiratuta egongo dira haien eguneroko lana KYOU sisteman sartuta geratzen.

Bezeroen departamentuaren kontrola externalizatua izango da WEBYA enpresa kontratatuz gero, sare sozialak eta gure webgunearen kontrola eramateko, eta horrela errazagoa izango da bezeroak bi horiek ezagutzea.